

# Bibliografiaren erabilera eta plagio akademikoa unibertsitate-ikasleen artean

Txema Egaña

Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea [HUHEZI]

Gaur egun ezinbestekoa bihurtu da unibertsitate-ikasleentzat Interneten informazioa bilatzea beren lan akademikoak egiteko; baina askotan informazio hori beren lanetan erabiltzen dute egilea nor den aipatu gabe eta erreferentzia bibliografikorik egin gabe, informazioa berea izango balitz bezala aurkeztuz. Ikerketa honen helburua izan da aztertzea unibertsitate-ikasleek erreferentzia eta aipamen bibliografikoak nola egiten dituzten, baita plagio akademikorik egiten duten ezagutzea ere. Azterketa egin da Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ziharduten ikasleekin eta beren irakasleekin. Ikerketa-aparatuan metodologia kuantitatibo eta kualitatiboak uztartu dira: galdetegiak eta eztabaida-taldeak. Emaitzek erakusten dute ikasleak ez direla ohartzen erreferentzia eta aipamen bibliografikoen erabileraren garrantziaz, eta gutxitan plagiitzen duten sentipena dutela, nahiz eta irakasleen artean plagioa arazo bihurtu den sentipena dagoen.

**GAKO-HITZAK:** Unibertsitate-ikasleak · Plagio akademikoa · Bibliografiaren erabilera · Informazio-konpetentziak

Given the proliferation of student plagiarism involving the Internet, this study was intended to understand the academic plagiarism among university students and how they cite and reference the information they found on the Internet. The study was carried out at Mondragon University (Basque Country). Quantitative data was collected using two questionnaires, and qualitative data was collected through five different focus groups. Participants were students and their teachers. Findings suggest that students don't understand the importance of citing and referencing the information they use in their academic research. Students think they don't plagiarize but teachers think plagiarism is a real problem.

**KEY WORDS:** University students · Academic plagiarism · Use of bibliography · Information literacy.

*Jasotze-data:* 2010-12-13. *Onartze-data:* 2011-02-04.

## 1. Sarrera eta testuingurua

Gaur egun Internet da ikasleek gehien erabiltzen duten informazio-iturria beren lan akademikoak egiteko (OCLC, 2005; Fuentes Agustí, 2006; Sureda eta Comas, 2006; Bristish Library, 2008). Eta Interneten ezaugarri bat da informazioa publikatzea eta gordetzea oso erraza dela; izan ere, ia denon eskura dago webgune bat kudeatzea eta bertan informazioa publikatzea. Ezaugarri horren ondorioz etengabe eguneratutako egundoko informazio-baliabide pila jartzen du Internetek gure eskura: hiztegiak, entziklopediak, aldizkariak, artikulak, artxiboak, datu-baseak, liburuak, irudiak, bideoak, ikasgaiak, aurkezpenetako diapositibak, esku-orriak, txostenak, lanerako paperak, blogak, podcastak, wikiak, RSSak eta munduko zientzialarien artean eragin handia duten zientzia-argitalpenak. Konbinazio horrekin, unibertsitateko edozein kidek posible du munduko zientzia- eta ezagutza-gune aurreratuenetan erabiltzen dituzten informazio-iturri berdinak baliatzea. Edozein ikasle, irakasle eta ikertzailearen esku dago munduko aldizkari eta webgune zientifiko ezagunenetara sartzeko eta bertan jasotako ezagutza atzitzea zientzialari ezagunenek egiten duten era eta denbora berdinean, atzipen-baldintzak berdinak direlako.

Hau guztia duela bi hamarkadara arte zientzialari, pedagogo eta gizarte-eragileen amets handienetako bat zen [informazio guztia, guztion eskura edukitzea], oso pertsona gutxi irudikatzen zuten eszenatokia, zientzia fikzio hutsa.

Baina honek guztiak, era berean, informazioa kopiatzea oso erraz bihurtu du, eta agerikoa da informazioa plagiatzeko joera handia agertu dela ikasleen artean azken urteotan, teknologikoki hori egitea oso erraza baita. Baina, zer ulertzen da *plagio* terminoa erabiltzen denean? Nola definitzen da plagio akademikoa? Hona hemen eremu teknologikoa kontuan hartzen duen Sureda eta Comasen definizioa:

Por ciber-plagio académico se entiende (...) la localización, adopción y presentación de ideas, teorías, hipótesis, resultados, textos, etc. ajenos como propios en cualquier trabajo académico (Comas eta Sureda, 2007:1).

Bi eratako plagio akademikoa bereizten dira literaturan (Park, 2003; Bugeja, 2001). Nahita egindako plagioan, besteen ideiak eta testuak norberarenak izango balira bezala nahita aurkezten dira. Bestetik, nahigabeko plagioa izango genuke, hau da, aipamenak eta parafraasiak era desegokian egiten direnean edo aipamenik ez denean egiten, ez delako ezagutzen praktika hau nola egin behar den.

Azken ikerketen arabera, unibertsitate-ikasleen % 61,1ek dio Interneteko testuak erabili izan dituela bere lanetan egilea nor den aipatu gabe, bere ideiak izango balira bezala (Sureda eta Comas, 2008). Ikerketa berean ikasleen % 3,3k zioen beste ikasleek aurrez egindako lan osoak bereak izango balira bezala entregatu izan dituela. Antzeko emaitzak jaso izan dira nazioarteko beste ikerketa batzuetan (Teixeira eta Rocha, 2006; McCabe, Butterfield eta Trevino, 2006; Rey-Abella, Blanch eta Folch-Soler, 2006; Agnes, 2008).

Eta unibertsitate-irakasleek zer uste dute honetaz guztiaz? Unibertsitate-irakasleen ustetan (Sureda, Comas eta Morey; 2009) ikasleek plagioa egiteko arrazoi nagusiak hauek dira: oso erraza delako plagioa egitea Interneten, ikasleek

ez dutelako baloratzen esfortzua eta lan egitea, ikasleek ez dutelako denbora era egokian kudeatzen, ikasleek ez dakitelako nola egin lan akademikoak, eta irakasleek ez dutelako ikasleen lanen jarraipen egokirik egiten. Era berean, irakasleek erabiltzen dituzten ikaste-irakaste metodologiek eta ikasleei eskatzen zaizkien lan akademikoen ezaugarriek ere badirudi eragina dutela ikasleek plagiorako duten jarreran (Hunt, 2003; Sureda, Comas eta Urbina, 2005).

## 2. Metodologia

Ikerketaren diseinu metodologikoa bi galdetegi eta bost eztabaida-taldetan oinarritu da, eta datu-bilketa ikasle eta irakasleekin egin da.

### 2.1. Parte-hartzaileak

Bi motatako parte-hartzaileak izan dira ikerketa honetan: ikasleak eta ikasle horien irakasleak. Parte hartu duten ikasleak izan dira Mondragon Unibertsitateko Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI), Eskoriatzan (Gipuzkoa), 2007/2008 ikasturtean Ikus-entzunezko Komunikazioa lizentzia ikasten ari ziren ikasleak. Ikasle horien irakasleek ere ikerketan parte hartu dute.

Galdetegiaren lagina 93 ikaslekoa izan zen, populazio guztitik 93 ikasleek bete baituzten galdetegia, hau da, lagina populazioaren % 66,4koa izan zen. Irakasleen kasuan, populazioa 26 irakaslek osatzen dute eta horietatik 22k galdetegia bete dute, hau da, populazioaren % 85ek.

Eztabaida-taldeetan, guztira 22 ikaslek hartu zuten parte; hau da, ikasleen populazio osoaren % 16k. Zortzi irakaslek parte hartu zuten eztabaida-taldean, hots, populazioaren % 31k.

### 2.2. Galdetegia

Ikerketa honetarako bi galdetegi mota osatu dira, bata ikasleei zuzenduta eta bestea irakasleek betetzeko. Ikasleei zuzendutako galdetegia izan da lehenengo moldatu eta balioztatu dena, eta gero, hori eredutzat hartuta, irakasleena egokitu eta balioztatu da. Irakasleen galdetegian bibliografiarekin erlazionatutako egoeren aurrean zer egiten duten erantzuteko eskatzen zaie ikasleei. Galderek ikaslearen gogoeta bilatzen dute, egiten dutenaren inguruan erantzun behar baitute. Era horretan, ikasleari informazioa eta bibliografia lantzen dituenegatik egiten duenari buruzko iritzia eskatzen zaio. Adibidez, item honetan bezala: *Beste pertsonen testu edo lanak erabiltzerakoan aipamen bibliografikoak egiten dituzu?*

Irakasleen galdetegiak ikasleen galdetegiko item berdinak ditu, baina kasu honetan, irakasleei euren iritzia eskatzen zaie ikasleek bibliografiarekin egiten dutenaren inguruan, horrela, galdetegi honen bidez jaso da irakasleen iritzia ikasleek bibliografia eta plagioarekiko egiten dutenaren inguruan. Item honetan bezala: *Beste pertsonen testu edo lanak erabiltzerakoan ikasleek aipamen bibliografikoak egiten dituzte?*

Galdetegi hau oinarrituta dago Association of College and Research Libraries (ACRL) elkarteak 2000. urtean argitaratu zituen *Informazio Konpetentzia*

*Estandarrak Goi Mailako Irakaskuntzarako* bosgarren estandarreko hirugarren jarduera-adierazlean: informazioan konpetente den ikasleak informazio-iturri ezberdinen erabilera aitortzen du bere produktu edo ekintzak komunikatzean (ACRL, 2000). Estandar horiek informazio-konpetentzien inguruan argitaratu diren estandar osatuenak dira, literaturan aipatuena eta ikerketetan erabilienak (Oakleaf, 2006).

### **2.3. Eztabaida-taldeak**

Guztira bost eztabaida-talde sortu dira; lau ikasleekin osatuta, eta beste bat, ikasle horien irakasleekin. Kategoria tematikoak sortzerakoan, ikerketa-aparatu kuantitatiboaren oinarriko bi plano hauek izan dira kontuan: ACRL infor-mazio-konpetentzien estandarren jarduera-adierazleak eta galdetegiko itemak. Analisisako Transana 2.22 softwarea erabili da.

### **2.4. Prozedura**

2007. urteko irailean egin zitzaion datu-bilketa egiteko eskaera Ikus-entzunezko Komunikazioa lizentziako zuzendaritzari; datu-bilketa bera 2007ko azaroa eta 2008ko otsaila bitartean egin zen. Datu-bilketaren antolaketa guztia Ikus-entzunezko Komunikazioa lizentziako zuzendariarekin prestatu zen, zehatz-mehatz prestatu ere.

## **3. Emaitzak**

Atal honen hasieran aurkeztuko dira galdetegietan jasotako emaitzak eta ondoren eztabaida-taldeetako emaitzak eskainiko dira. Ondorioen atalean emaitza guztiak kontuan hartuko dira era globalean.

### **3.1. Galdetegiko emaitzak**

Emaitzak irakurtzerakoan, kontuan izan behar da ikasleen eta irakasleen iritziak jaso direla galdetegian, hau da, ikasleek egiten dutenaren inguruan esaten dutena, eta irakasleek uste dutena ikasleek bibliografiaren inguruan egiten dutenaz. Ataza-itemean, aldiz, aipamen bibliografiko bat interpretatzeko ikasleen gaitasuna neurtu da, eta irakasleen ustea ikasleek aipamen bibliografiko hori interpretatzeko izango duten gaitasunaz.

Lehendabizi ikasle guztien eta irakasle guztien datuak aurkeztu eta konparatzen dira, bi talde horien arteko ezberdintasun esanguratsuak bereziki nabarmenduz. Ondoren ikasleen datu guztiak ikasturteka aurkezten eta konparatzen dira, eta era berezian azpimarratzen dira ikasturteen arteko ezberdintasun esanguratsuak.

Galdetegiko emaitzen tauletan agertzen den informazioa hau da: ikasle eta irakasleen batez bestekoak, batez besteko horien baliokidetzak ehunekotan, desbideratze tipikoa (parentesi artean) eta batez bestekoen arteko ezberdintasunen esangura-maila.

### 3.1.1. Besteek sortutako informazioa erabiltzean aipamen bibliografikoak egitea

Atal honen helburua da jakitea ikasleek uste duten aipamen bibliografikoak egiten dituztela beren lanetan besteek sortutako informazioa erabili behar dutenean.

**1. taula. Besteek sortutako informazioa erabiltzean aipamen bibliografikoak egitea. Ikasleak eta irakasleak.**

<b>Besteek sortutako informazioa erabiltzean aipamen bibliografikoak egitea.</b>	<b>Ikasleen batez bes.</b>	<b>Irakasleen batez bes.</b>	<b>Esangura-maila</b>
	1,86 % 62,0 (,95)	1,05 % 35,0 (,52)	U=436,5; p<0,01 *

Eskala: 0-3

Ikasleek aipamen bibliografikoa askotan baliatzen dutela diote besteek sortutako informazioa beren lanetan erabiltzean (ia kasuen bi herenetan).

Baina ikasle eta irakasleen datuen artean ezberdintasun oso esanguratsua (U=436,5; p<0,01) ageri da atal honetan. Ikasleek diote beren lanetan besteek sortutako informazioa erabiltzean irakasleek uste dutena baino gehiagotan egiten dituztela aipamen bibliografikoak.

Hurrengo taulan ikasleen datuak ikasturteka aurkezten dira. Ikasturteen arteko datuen konparaketa egiteko Kruskal-Wallis-en  $X^2$  froga egin da.

**2. taula. Besteek sortutako informazioa erabiltzean aipamen bibliografikoak egitea. Ikasleak ikasturteka.**

<b>Besteek sortutako informazioa erabiltzean aipamen bibliografikoak egitea.</b>	<b>1. maila, batez bes.</b>	<b>2. maila, batez bes.</b>	<b>3. maila, batez bes.</b>	<b>4. maila, batez bes.</b>	<b>Esangura-maila</b>
	1,58 % 52,7 (,96)	1,87 % 62,3 (,94)	2,30 % 76,7 (,87)	1,62 % 54,0 (,92)	$X^2=9,44$ ; p<0,05 *

Eskala: 0-3

Besteek sortutako informazioa ikasleek beren lanetan erabiltzen dutenean, informazio horren aipamen bibliografikoa egiteko maiztasunean ezberdintasun esanguratsua ( $X^2=9,44$ ; p<0,05) dago ikasketa-mailen artean. Ezberdintasun hori zein mailaren artean dagoen zehazteko Mann Whitneyren U froga ez-parametrikoak egin dira ikasturte guztiak binaka konparatuz, eta ezberdintasun esanguratsua agertu da bai hirugarren eta laugarren mailen artean (U=141,5; p<0,05), eta baita hirugarren eta lehenengo mailen artean ere (U=118,5; p<0,01). Beraz, hirugarren mailakoek diote gehiagotan egiten dituztela aipamen bibliografikoak, lehenengo mailakoek eta laugarren mailakoek diotena baino.

### 3.1.2. [Ataza-itema] Erreferentzia bibliografikoak interpretatzeko gaitasuna

Ataza-item baten bidez ikasleek erreferentzia bibliografikoak interpretatzeko duten gaitasuna neurtu nahi izan da. Beraz, kasu honetan ikasleen datuak ataza bat egiteko erakutsi duten gaitasunean oinarrituta daude, ez egiten dutenaren inguruko iritzietan.

Hurrengo taulan, gaitasuna erakutsi duten ikasleen ehunekoen batez beste-koak eskaintzen dira, baita irakasleen iritzia ere ikasleek ataza hau egiteko gaitasunaren inguruan. Ikasleen eta irakasleen emaitzak konparatu ahal izateko Mann-Whitneyren U froga ez-parametrikoa egin da.

#### 3. taula. Erreferentzia bibliografikoak interpretatzeko gaitasuna.

##### Ikasleak eta irakasleak.

Erreferentzia bibliografikoak interpretatzeko gaitasuna.	Ikasleen ehunekoa	Irakasleen ehunekoa	Esangura-maila
		% 45,2	% 6,7

Ehunekotan (%)

Ikasleen ia erdiek era egokian interpretatu dute ataza-itemeko erreferentzia bibliografikoak.

Ikasle eta irakasleen datuen artean ezberdintasun oso esanguratsua ( $p < 0,01$ ) ageri da kasu honetan ere. Ikasleek irakasleek uste dutena baino gehiagotan interpretatzen dituzte era zuzenean erreferentzia bibliografikoak.

Hurrengo taulan ikasleen datuak ikasturteka aurkezten dira. Kruskal-Wallisen  $X^2$  froga egin ondoren ikasturteen artean ez da aurkitu ezberdintasun esanguratsurik; hau da, antzeko gaitasuna erakutsi dute ikasturte ezberdinetako ikasleek.

#### 4. taula. Erreferentzia bibliografikoak interpretatzeko gaitasuna.

##### Ikasleak ikasturteka.

Erreferentzia bibliografikoak interpretatzeko gaitasuna.	1. maila, ehunekoa	2. maila, ehunekoa	3. maila, ehunekoa	4. maila, ehunekoa	Esangura-maila
		% 41	% 59	% 38	% 38

Ehunekotan (%)

### 3.1.3. Besteek sortutako informazioa berea bezala erabiltzea, aldaketarik egin gabe

Ikasleek bilatu eta aukeratu duten informazioa beren lan eta produktuetan erabiltzean informazioa eraldatu eta lantzen dutela uste ote duten ezagutu nahi da atal honetan. Hurrengo taulan ikasleen eta irakasleen datuen batez bestekoak eskaintzen dira, baita beraien esangura-maila ere Mann-Whitneyren U froga ez-parametrikoaren arabera.

**5. taula. Besteek sortutako informazioa berea bezala erabiltzea, aldaketarik egin gabe. Ikasleak eta irakasleak.**

Besteek sortutako informazioa, berea bezala erabiltzea, aldaketarik egin gabe.	Ikasleen batez bes.	Irakasleen batez bes.	Esangura-maila
	0,68 % 15,41 (,77)	1,83 % 61,0 (,62)	

Eskala: 0-3

Besteek sortutako informazioa, aldatu gabe eta berea izango balitz bezala aurkeztea, ikasleen ustez gutxitan egiten duten praktika da; hau da, ikasleen arabera gutxitan kopiatzen dute (aldaketarik egin gabe eta berea izango balitz bezala) bilatzen duten informazioa beren testuetan.

Baina ikasle eta irakasleen datuak konparatutakoan ezberdintasun oso esanguratsua ( $U=244,0$ ;  $p<0,01$ ) ageri da. Ikasleek diote irakasleek uste dutena baino gutxiagotan aurkezten dutela beraiena balitz bezala besteek sortutako informazioa. Irakasleen ustea da, aldiz, praktika hori ikasleek kasuen ia bi herenetan egiten dutela.

Hurrengo taulan ikasleen datuak ikasturteka eskaintzen dira. Ikasturteen arteko datuen konparaketa Kruskal-Wallis-en  $X^2$  frogaren bidez egin da.

**6. taula. Besteek sortutako informazioa berea bezala erabiltzea, aldaketarik egin gabe. Ikasleak ikasturteka.**

Besteek sortutako informazioa, berea bezala erabiltzea, aldaketarik egin gabe.	1. maila, batez bes.	2. maila, batez bes.	3. maila, batez bes.	4. maila, batez bes.	Esangura-maila
	0,47 % 15,7 (,61)	0,47 % 15,7 (,78)	0,83 % 27,7 (,72)	1,00 % 33,3 (,84)	

Eskala: 0-3

Froga honen arabera ezberdintasun esanguratsua ( $X^2=9,09$ ;  $p<0,05$ ) dago ikasketa-mailen artean besteek sortutako informazioa berea bezala, aldaketarik egin gabe erabiltzean. Ezberdintasun hau zein mailaren artean dagoen zehazteko Mann Whitneyren U froga ez-parametrikokoak egin dira ikasturte guztiak binaka konparatuz, eta ezberdintasun esanguratsua agertu da bigarren eta laugarren mailen artean ( $U=199,5$ ;  $p<0,05$ ), eta lehenengo eta laugarren mailen artean ( $U=129,5$ ;  $p<0,05$ ). Beraz, laugarren mailakoek diote gehiagotan erabiltzen dutela besteek sortutako informazioa beraiena balitz bezala, aldaketarik egin gabe, bigarren mailakoek eta lehenengo mailakoek diotena baino.

Ikasturteak aurrera doazen neurrian ikasleek gero eta gehiagotan erabiltzen dute besteen informazioa beraiena balitz bezala, aldaketarik egin gabe, eta laugarren mailako ikasleena da praktika hau sarrien egiten duen taldea.

### 3.1.4. Informazioaren jabetza intelektuala beti egilearena dela kontuan hartzea

Ikasleek, bilatzen duten informazioa erabiltzean, kontuan izaten dute informazioaren jabetza intelektuala egilearena dela? Hurrengo taulan ikasleen eta irakasleen datuen batez bestekoak eskaintzen dira eta beraien esangura-maila Mann-Whitneyren U froga ez-parametrikoren arabera.

**7. taula. Informazioaren jabetza intelektuala beti egilearena dela kontuan hartzea. Ikasleak eta irakasleak.**

Informazioaren jabetza intelektuala, beti egilearena dela kontuan izatea.	Ikasleen batez bes.	Irakasleen batez bes.	Esangura-maila
	1,60 % 53,3 (,92)	0,95 % 31,7 (,70)	U=544,5; p<0,05 *

Eskala: 0-3

Ikasleen esanetan, bilatzen duten informazioa erabiltzean, kasuen erdietan izaten dute kontuan informazioaren jabetza intelektuala egilearena dela.

Ikasle eta irakasleen datuen artean ezberdintasun esanguratsua (U=544,5; p<0,05) ageri da, eta kasu honetan ere estimazio baxuena irakasleena da. Ikasleek diote irakasleek uste dutena baino gehiagotan izaten dutela kontuan informazioaren jabetza intelektuala egilearena dela.

Hurrengo taulak ikasleen datuak ikasturteka aurkezten ditu. Ikasturteen artean ez da topatu ezberdintasun esanguratsurik; hau da, ikasketa-maila guztietako ikasleek antzera izaten dute kontuan informazioaren jabetza intelektuala beti dela egilearena. Ikasturteen arteko datuen konparaketa egiteko Kruskal-Wallisren  $X^2$  froga egin da.

**8. taula. Informazioaren jabetza intelektuala beti egilearena dela kontuan hartzea. Ikasleak ikasturteka.**

Informazioaren jabetza intelektuala, beti egilearena dela kontuan izatea.	1. maila, batez bes.	2. maila, batez bes.	3. maila, batez bes.	4. maila, batez bes.	Esangura-maila
	1,63 % 54,3 (,95)	1,70 % 56,7 (,91)	1,48 % 49,3 (,99)	1,57 % 52,3 (,87)	$X^2=0,73$ ; p=0,87

Eskala: 0-3

## 3.2. Eztabaida-taldeetako emaitzak

### 3.2.1. Lehenengo mailako ikasleen (IKO1) eztabaida-taldearen analisia

Uste dute norberaren etikan kokatzen dela eremu akademikoan besteek egindako lanak kopiatzea, maila pertsonaleko kontu bat dela, balio-juizio gutxi agertzen da portaera horren inguruan. Kopiatzen dutenak harrapatzea ere erraza dela uste dute, eta, oro har, denek diote ez dutela kopiatzen zuzenean: «nahiago dut nire erara lan bat gaizki egin, beste baten hitzak erabiliz perfektua egitea baino».

Talde honen ustez, besteek egindako informazioa beren lanetan erabiltzeko irizpide nagusia da esaten den horrekin identifikatuta sentitu behar direla. Testuan esaten denarekin identifikatzen ez badira, ez dute informazio hori beren lanetan txertatuko.

Besteen informazioa erabiltzen dutenean ez dute ohiturarik bibliografia osatzeko. Badakite zertarako diren aipamen bibliografikoak, eta behar izanez gero, badakite nola egiten diren, baina behar-beharrezkoa zaienean baino ez dituzte txertatzen; hau da, irakasleek espresuki eskatzen dietenean.

### *3.2.2. Bigarren mailako ikasleen (IKO2) eztabaida-taldearen analisia*

Besteek sortutako informazioa beren lanetan erabiltzearen inguruko gaia atera denean, azaleratu den sentipena da ez dela zilegi besteek sortutako informazioa erabiltzea beraiek osatu behar dituzten testuetan, nahiz eta parafraseatua, itzulia eta aipatua izan. Hori eginez gero, kopiatzen ari direlako ustea dute, beren lanaren kalitatea gutxitzen dela uste dute, irakasleak zigortu egingo dituela pentsatzen dute: «Askotan pasatzen da, zuk ez badakizu ezer gai bati buruz eta topatzen baduzu artikulu on bat, eta nolabait kopiatzen baduzu, ba gainera bibliografia jartzen badiozu irakasleari, ba esango dizu: zuk oso ondo dakizu kopiatzen! Orduan, askotan hobe da ezer esan gabe zuk sinatu eta kito». Bibliografia ez osatzea, hau da, erabili dituzten iturriak irakurleari ez eskaintzea, eta besteen informaziorik erabili ez balute bezala aurkeztea, estrategia egokiagoa dela uste dute: «Bibliografia eta dena jartzen baduzu ba berehala jakingo du nondik atera duzun informazioa, harrapatzeko pista denak ematen dizkiozu. Askotan hobeto da isiltzea eta ezer ez aipatzea». Informazio-iturriak beraien lanetan nola erabiltzen dituzten argi dute, prozesua argi dute: «Kopiatu osoa ez, baina hartu erdarazko testu bat, jarri euskaraz, eta zure bi gauza gehiago jarri eta listo, bai». Praktika horren zilegitasuna ez dute argi, ez dakite ondo edo gaizki ari diren: «Gauza bat topatzen baduzu, zuk nahi duzuna, ba hori idatziko duzu, ezta? Erraz esaten dute irakasleek kopiatu egiten dugula beste informazioaz baliatzen garelako, baina ez badago beste irtenbiderik zer egin behar dugu?».

Oro har, pentsatzen dute Interneten dagoen informazioa erabil daitekeela nahi duten bezala, ez dute gatazka etikorik horri dagokionez. Gai hori atera denean elkarrizketa erabat bideratu da musikara, eta pisu gehien izan duen argudioa da Internet oso eraginkorra dela pertsonen sortutako lanak zabaltzeko eta beraiek horretaz profitatu nahi dutela, besterik gabe: «Ezin bada erabili, orduan zergatik jartzen dute Interneten?», edo, «Musika deskargatzearena pentsatzen dut super ondo, eta horretaz kexatzen direnak ba dira burges batzuk». Egileak hurbilekoak direnean eta arrakasta handirik ez dutenean baino ez dira ageri auzi etikoak, baina kide denak ez daude ados horretan.

Bibliografia-aipamenak egiteko beharrik ez omen dute izaten, eta behar izanez gero, ba omen dakite nola egin aipamen bibliografiko bat. Egitekotan, bakarrik lan sendoetan egiten omen dituzte, baina normalean ez omen zaie aipamen bibliografikorik egitea eskatzen.

### 3.2.3. Hirugarren mailako ikasleen (IKO3) eztabaida-taldearen analisia

Moderatzaileak topatzen duten informazioa beren lanetan nola txertatzen duten galdetzen dienean, berehala agertu dira barreak, kopiatzearekin lotzen dutelako gaia. Besteek sortutako informazioa berena balitz bezala aurkeztea ez dute portaera desegoki batekin erlazionatzen, gehiago ikusten dute bihurrikeria modura.

Erreferentzia eta aipamen bibliografikoak bakarrik espresuki eskatzen zaizkienean sartzen dituzte, eta hori gutxitan izaten da: «Lan potoloak badira bai, baina ematen badigute testu bat, "irakurri hau eta aurkitu informazio pixka bat eta idatzi testu bat", ba orduan ez duzu bibliografia sartzen». Taldeko kide batzuen ustez, unibertsitateko ikasketetan lan *potolo* gutxiago egiten dituzte Batxilergoan baino, eta bibliografia jartzeko ohitura galdu egin dute unibertsitatean: «Ahaztu egiten zait jartzea, ze hemen [unibertsitatean] lan potoloak oso gutxi dira, gehienak dira bi, hiru, lau orriko lanak eta hor ez dute eskatzen». Beste batzuek diotenez, ez Batxilergoan ez unibertsitatean ez zaie eskatu bibliografia jartzea. Testuan bertan aipamen zuzenak gehiagotan egiten dituztela diote kide batzuek, bereziki egileak aipatu nahi dituztenean eta literalki testuak sartu nahi dituztenean, baina aipamen zuzen horiek ez dituzte bibliografiarekin erlazionatzen, eta ez da argi geratzen nola egiten dituzten aipamen horiek praktikan. Mezu kontrajarriak ageri dira aipamen zuzenak egitearen inguruan, eta elkarrizketako beste une batean testuak literalki ez dituztela erabiltzen ere esaten da: «Irakurri bai baina literalki ez duzu jartzen, ze bestela kopia dela esaten dizute». Erreferentzia bibliografikoak eta aipamen bibliografikoak egiten ikasi duten arren, arazoak izango omen lituzkete berriro egiteko: «Erakutsi digute baina nik buruz ez nuke jakingo egiten».

Lanak egin behar dituztenean normalean daukaten dinamika da informazio ezberdinak topatzea eta gero testu berri bat idaztea parafraseatuta: «Ideia garrantzitsuak azpimarratzen ditugu, beste bide batzuetara jo, beste iturri batzuetara beste informazio mota baten bila, baina beti gaiarekin zerikusia duena, eta gero moldatzen dugu guztia, pot-pourri bat egiten dugu, collage bat».

### 3.2.4. Laugarren mailako ikasleen (IKO4) eztabaida-taldearen analisia

Gai honen inguruan ez dute interesik erakutsi. Zuzenean esan dute ez dutela ohiturarik bibliografia txertatzeko eta aipamenak egiteko, irakasleek ez dietelako hori egitea eskatzen: «Egileak ez ditugu aipatzen lanetan ez delako eskatzen normalean, eta lanak praktikoak ere badirelako». Dena den, aipamen eta erreferentzia bibliografikoak egitea praktika ona dela uste dute.

### 3.2.5 Irakasleen eztabaida-taldearen analisia

Ikasleek bibliografia aipatzeko joerarik ez dutela azpimarratu da elkarrizketan: «Laugarren mailako ikasleek ez dakite aipamen bibliografikoak egiten eta hori oinarrizko gauza da. Aterako dira unibertsitatetik besteen informazioa beren testuetan nola txertatzen den jakin gabe», edo, «Nik uste dut arazo hori izan dudala [bibliografia ez aipatzearena] esku artean izan ditudan karrera amaierako proiektu guztietan». Irakasleen erantzukizuna ere aipatzen da, hau da, irakasleek ez dituztela aipamenak eta bibliografia behar bezala lantzen eta ikasleei ez zaiela erakusten nola erabili behar duten bilatzen duten informazioa: «Beharbada hori ere

da gure hutsune bat, ez diegulako bibliografiarekin laguntzen», edo, «Aipamen bibliografikoak ez ditugu landu ikasleekin, aipuak nola txertatu testuetan ez dugu landu, eta diskurtso zuzena eta ez-zuzenaren kontua ikastea oso inportantea da». Eta horren ondorioak ikasleen lanen kalitatean ere igartzen omen dira: «Ikasleek lanak egin behar dituztenean informazio gutxi mugitzen dute eta zehaztasun falta handia dute, orokorkerian mugitzen dira gauza zehatzak aipatu gabe».

Horrekin batera plagioaren kezka ere agertu da: «Plagioa arazo handi bat da momentu honetan fakultatean, bereziki gaztelaniaz ematen diren ikasgaietan. Zeren gauza bat da informazioaren bidez elikatzea eta beste bat da kopiatzea zuzenean. Eta gure mezua fakultate mailan gainera nik uste dut zorrotzagoa izan behar dela, hau da, plagioa zero bat dela». Plagioaren aurrean fakultatean politika definitua ez egotea negatiboa dela uste da: «Erakunde akademiko modura ez gara jabetu egoera honen larritasunaz, eta hori da ikasleei transmititzen dieguna. Baina ez litzateke horrela izan behar, eta transmititu beharko genuena da plagioak ondorio batzuk dituela». Baina horrelako neurriak martxan jartzeko zailtasunak daudela ere agertu da elkarrizketan: «Bai, baina kontuan izan behar da horretarako izan behar garelako gorrak eta oso zehatzak».

Era berean, aipatzen da gauza bat dela plagioa, hau da, kopiatzea, eta beste bat besteen hitzak erabiltzea baina aipamenik egin gabe, ahaztu egin zaielako edo ez dakitelako nola egiten diren aipamen bibliografikoak. Lehenengoak asmo jakina du, eta bigarrena, berriz, ezjakintasuna da. Esaten da, halaber, besteek sortutako informazioa ez aipatze horren eragileetako bat izan daitekeela gaur egun dena originala izan behar delako kulturen bizitzea: «Dena izan behar da originala, nik sortua, nirea izan behar da, eta bestela plagioa da». Hau da, ikasleek pentsa dezakete erreferentzia bibliografikoak eta aipamen bibliografikoak egitea ez zaiela komeni, uste dutelako informazioa nondik eskuratu duten aipatzen badute beren lanaren ez-originaltasuna agerian geratuko dela irakaslearen aurrean. Horren aurrean ikasleei originaltasunaren eta sorkuntzaren inguruan formazioa eskaintzea interesgarria izan daitekeela aipatu da: «Ikasleekin lantzea zer den originala izatea, zer den iturri unibertsitateko edatea eta abar».

### 3.2.6. Eztabaida-talde guztien analisisen laburpena

#### 11. taula. Eztabaida-taldeetako emaitzen laburpena.

<b>Eztabaida-taldeetako emaitzen laburpena</b>
<b>Lehenengo mailako ikasleen ekarpenak</b>
Erreferentzia bibliografikoak eta aipamen bibliografikoak ez dituzte normalean egiten, ez zaizkielako eskatzen unibertsitateko lanak egiteko.
Besteek sortutako informazioa beren lanetan erabiltzeko lehenik eta behin informazio horrekin identifikatuta sentitu behar dira. Testuan esaten denarekin identifikatzen ez badira, ez dute informazio hori beren lanetan txertatzen.
Plagioa arlo pertsonaleko kontu bat dela uste dute, norberaren balioekin erlazionatuta dagoena, eta ez dute balio-juiziorik egiten beronen inguruan. Denek diote lan akademikoak egitean ez dutela kopiatzen.

<b>Bigarren mailako ikasleen ekarpenak</b>
Nahasmena erakutsi dute besteek sortutako informazioaren erabileraren inguruan eta aipamen bibliografikoen inguruan.
Erabiltzen dituzten informazio-iturriak aipatzea irakasleari arrasto gehiegi ematearen sinonimotzat hartzen dute eta praktika arriskutsua izan daitekeela uste dute, irakasleak zigortu egingo dituelako besteek sortutako informazioa erabili dutela konturatutakoan.
Ez dute ohiturarik erabiltzen dituzten informazio-iturriak aipatzeko, ez omen zaielako eskatzen hori egitea.
<b>Hirugarren mailako ikasleen ekarpenak</b>
Nahasmena erakutsi dute aipamen bibliografikoen helburuen inguruan, baita erabileraren inguruan ere.
Ez dute erreferentzia eta aipamen bibliografikoak egiteko ohiturarik, irakasleen partetik ez omen zaielako hori egitea eskatzen.
Ez dute uste praktika ona denik erabili dituzten informazio-iturriak beren lanetan aitortzea; irakasleari informazioa nondik atera duten esanez gero, zigortuko dituen beldur dira. Nahasmen handia erakutsi dute puntu honetan.
Bihurrikeriatzat jotzen dute besteek egindako informazioa beren lanetan kopiatzea egilea nor den aitortu gabe, ez dute hartzen portaera desegokitzat.
<b>Laugarren mailako ikasleen ekarpenak</b>
Gai honek interes gutxi sortu du elkarrizketan zehar.
Ez dute ohiturarik aipamen bibliografikoak egin eta bibliografia osatzeko, irakasleek ez omen dietelako eskatzen hori egitea, eta egiten dituzten lan gehienak oso praktikoak direlako.
<b>Irakasleen ekarpenak</b>
Ikasleek ez omen dute aipamenak eta bibliografia osatzeko ohiturarik eta horrek kezka sortzen du irakasleen artean; izan ere, norberak bere ezagutza garatzean besteek sortutako informazioa era egokian erabiltzeari funtsezko deritzote. Egoera horren erantzukizun nagusia irakasleena eta erakundearena dela uste da.
Plagioa arazo bihurtu izanaren sentipena dago, batez ere gaztelaniaz ematen diren ikasgaietan. Horren aurrean erakundeak politika zehatzagoak eta zorrotzagoak diseinatzearen beharra ikusten da.
Irakasleek uste dutenez, plagioaren zabalkundearen arrazoietakoa bat da gaur egun dena originala izan behar delako kulturen bizi garela eta horrek ikasleengan nahasmena eragin dezakeela ezagutza nola sortzen den ulertzerakoan.
<b>Eztabaida-talde guztien konparazioa</b>
Talde guztietan aipatu da ikasleek ez dituztela erreferentzia eta aipamen bibliografikoak egiten unibertsitateko lanetan. Ikasleek diote praktika hori ez dutela egiten ez zaielako hori egitea eskatzen irakasleen aldetik. Egoera horrek kezka sortzen du irakasleen artean eta egoeraren erantzukizun nagusia irakasleena eta erakundearena dela uste dute.

Bigarren eta hirugarren mailako taldeek nahasmena erakutsi dute aipamen bibliografikoen erabileraren eta helburuen inguruan. Erabiltzen dituzten iturriak aipatzea irakasleari arrasto gehiegi ematearekin parekatzen dute eta praktika arriskutsua izan daitekeela iruditzen zaie, irakasleak zigortu egingo dituelako besteek sortutako informazioa erabili dutela konturatutakoan. Ez dute garbi praktika ona denik.

Ikasleen taldeetan plagioa bihurrikeriatzat jotzen dute edo, bestela, arlo pertsonaleko kontu bat dela uste dute. Talde gehienetan aipatzen da lan akademikoak egitean ez dutela kopiatzen. Irakasleek, berriz, uste dute plagioa arazo bihurtu dela eta horren aurrean erakundeak politika zehatzagoak eta zorrotzagoak diseinatu behar dituela.

#### 4. Ondorioak

Ondorioak aztertzerakoan kontuan izan behar da ikasleei eta irakasleei eskatu zaiela erantzunak ematean beti lan akademikoak egiteko egoeran jartzea; beraz, ondorio hauek ulertu behar dira ikasleek zeregin akademikoak gauzatzeko behar duten informazioarekin erlazionatuta. Gogoratu behar da, halaber, ondorio hauek Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa lizentziako ikasleen informazio-kompetentziak aztertzearen ondorio direla, eta ez dutela zertan zerikusirik izan beste ikasketa, fakultate edo unibertsitateen errealitatearekin.

**1. ondorioa.** Ikasleek gutxitan egiten dituzte erreferentzia bibliografikoak eta aipamen bibliografikoak, irakasleek ez dietelako hori egitea eskatzen.

Ikasleek ez dituzte egiten aipamen bibliografikoak unibertsitateko lanetan eta ez dituzte aipatzen erabiltzen dituzten informazio-iturriak. Hau agerikoa izan da eztabaida-talde guztietan, baita galdetegiko ataza-item batean aipamen bibliografiko bat interpretatzeko eskatu zaienean ere, ikasleen % 54,8 ez delako gai izan aipamen bibliografiko bat era egokian interpretatzeko. Azken emaitza hau Mittermeyer eta Quironen (2003) ikerketakoa baino kaskarragoa izan da, baina galdetegiko iritzi-itemetan ikasleek erantzun dute aipamen bibliografikoak askotan egiten dituztela, kasuen % 62,0tan. Beraz, kontraesana dago esaten dutenaren eta egiten dutenaren artean. Honen azalpena izan daiteke ikasleek praktika ona zein den ezagutzen dutela, erabilitako informazio-iturriak aipatzea alegia, eta galdetegian hala markatzen dutela, baina eztabaida-taldeetan taldeak aitortzen du benetan zein den beren praktika (ez duela aipamen bibliografikorik egiten).

Ikasleek diote bibliografia ez dutela aipatzen irakasleen partetik ez zaielako hori egitea eskatzen eta egin behar izaten dituzten lan gehienak oso praktikoak izaten direlako. Irakasleen artean paradoxa hau sumatu da: alde batetik funtsezko irizten diote norberak bere ezagutza garatzean besteek sortutako informazioa era egokian erabiltzeari eta aipatzeari, baina ez dute bultzatzen ikasleen artean hori praktikan egitea. Egoera horrek kezka sortzen du irakasleengan eta egoeraren erantzukizun nagusia irakasleena eta erakundearena dela uste dute.

**2. ondorioa.** Ikasle askok uste dute praktika arriskutsua dela erabilitako informazio-iturriak aipatzea, uste dutelako irakasleak zigortu egingo dituela beste norbaitek sortutako informazioa erabili dutela konturatutakoan.

Ebidentziak ez dira oso sendoak baina bai harrigarriak. Ikasleen bi taldetan ez dute uste praktika ona denik erabili dituzten informazio-iturriak beren lanetan aitortzea; irakasleari pista gehiegi ematea dela uste dute erabili dituzten informazio-iturriak aipatzea, eta irakasleari informazioa nondik atera duten esanez gero, zigortuko dituen beldur dira. Uste dute estrategia egokiagoa dela bibliografiarik ez osatzea; hau da, erabili dituzten iturriak ez eskaintzea eta besteek sortutako informazioa erabili ez balute bezala aurkeztea beren lanean.

Literaturan ez da aurkitu ondorio honen inguruko ekarpenik. Ikerketa gehiago behar da dinamika hau argitzeko eta mekanismoak ezarri ahal izateko egoera arriskutsu hau aldatze aldera.

**3. ondorioa.** Ikasleek uste dute gutxitan plagiatzen dutela, baina irakasleen artean plagioa arazo bihurtu den sentipena dago.

Ikasleen esanetan gutxitan egiten duten praktika da beste norbaitek sortutako informazioa beren lanetan erabiltzea egilea nor den aipatu gabe; irakasleen ustez, aldiz, ikasleek plagioa egiten dute.

Agerikoa da ikasleen ustea dela beren lanetan gutxitan kopiatzen dutela besteek sortutako informazioa. Era berean, ebidentzia batzuk ere agertu dira zeinek erakusten baitute ikasleek plagioa arlo pertsonaleko kontu bat bezala ulertzen dutela, eta ez dutela balio-juiziorik egiten berorren inguruan; are gehiago, bihurrikeriatzat jotzen dute portaera desegokitzat baino gehiago. Horri gagozkiola, ikasleak era ezberdinean jarduten dira euskarriaren arabera, eta testuekin aritzen direnean beraien jardura ez da musika eta bideoak erabiltzen dituztenekoaren parekoa. Hau bat dator British Libraryren eta JICSen (2008a) ondorioekin eta ez horrenbeste Frand (2000) eta Shih eta Allenen (2006) iradokizunekin, haiek ikasleen jarrera uniformeak zela baitzioten.

Irakasleen artean plagioa arazo bihurtu izanaren sentipena dago, beste ikerketa batzuetan agertu den bezala (Luckin *et al.*, 2008; Stock, 2008; British Library eta JICS, 2008b) baina ikerketa honetako irakasleek uste dute plagioa batez ere gaztelaniaz ematen diren ikasgaietan gertatzen dela. Dena den, Ikus-entzunezko Komunikazioa lizentziako curriculumean euskara denez hizkuntza nagusia, pentsa daiteke plagioaren arazoa beste hizkuntza erabiliagoekin aritzen diren erakundeetan baino arazo txikiagoa izan daitekeela. Horren aurrean erakundeek politika zehatzagoak eta zorrotzagoak diseinatzearen beharra ikusten da. Irakasleek uste dute plagioaren zabalkundearen arazoietako bat dela gaur egun dena originala izan behar delako kulturari bizi garelako eta horrek ikasleengan nahasmena eragin dezakeela ezagutza nola sortzen den ulertzerakoan.

Agerikoa da gai hau uste baino konplexuagoa dela eta eraginkorra izan daitekeela curriculumean ezagutzaren eta zientziaren bilakaerari buruzko edukiak lantzea, ikasleek uler dezaten ezagutza eraikitzeke besteek sortutako informazioaren erabilera eta aitormena ezinbestekoa dela, eta uler dezaten, halaber,

*ezagutzaren gurpilaren* dinamika emankorra, modu horretan beronen barruan sartu ahal izateko.

## 5. Gomendioak eta eztabaida

Ikerketa hau lagungarria izango da hobeto ulertzeko nola ebaluatzen eta aukeratzten duten unibertsitate-ikasleek behar izaten duten informazio akademikoa. Ikerketa honek datu ugari eskaini ditu unibertsitate-ikasleen ikaste-prozesuko jarduera konplexu eta garrantzitsu horren inguruan, baina ezinbestekoa da gai honetaz gehiago ikertzen jarraitzea.

Komeni da sakonago ikertzea ikasleek informazioarekin daukaten **praktika erreala**, benetan egiten dutena hobeto ezagutzeko, agerikoa izan baita ikerketa honetan ikasleek esaten dutenaren eta egiten dutenaren artean saltoa dagoela.

Unibertsitateek politika zehatzagoak eta zorrotzagoak diseinatu behar dituzte **aipamen bibliografikoen** eta **plagioaren** inguruan, ahaztu gabe ezinbestekoa dela ikasleen artean sustatzea gai honen inguruko sentiberatzea, hausnarketa eta formazioa. Ikasleek erreferentzia bibliografikoak eta aipamen bibliografikoak maiztasunez eta zuzen egin behar dituzte eta plagioa ezin da inoiz onartu. Hau guztia konplexua denez, eraginkorra izan daiteke ikasleekin lantzea ezagutza eta zientzia nola eraiki eta garatzen diren, ikasleek uler dezaten ezagutza eraikitzeo besteek sortutako informazioaren erabilera eta aitormena ezinbestekoak direla; hau da, ikasleek *ezagutzaren sorkuntzaren gurpila* ulertu behar dute, dinamika emankor horretan beraiek ere *sartu* ahal izateko. Ikerketa gehiago behar da material pedagogikoa diseinatzeko, ikasleek uler dezaten erabiltzen duten informazioa aitortzeak duen garrantzia eta kontuan izan dezaten zientzia eraikitzeo funtsezkoa dela besteek sortutako informazioa erabiltzea eta aitortzea.

**Originaltasunaren** eta **sorkuntzaren** arteko erlazioa ere komeni da ikasleekin lantzea, sortzen den guztia originala izan behar den kulturari bizi garelako eta horrek ikasleengan nahasmena eragiten duelako, batez ere kontzeptu hauen inguruan: originala, tradizioa, kopia, plagioa...

## Bibliografia

- ACRL [Association Of College And Research Library] (2000): *Information literacy competency standards for higher education*, <<http://www.ala.org/acrl/ilcomstan.html>>.
- Agnes, F. (2008): *Los usos de Internet en la educación superior. De la documentación... al plagio, Six Degrés*, Zaragoza, <[http://www.compilatatio.net/files/080521\\_sixdegres-univ-barcelona\\_univ-zaragoza\\_encuesta-plagio.pdf](http://www.compilatatio.net/files/080521_sixdegres-univ-barcelona_univ-zaragoza_encuesta-plagio.pdf)>.
- British Library, JICS (2008): *Information behaviour of the researcher of the future* [ikerketa-txostena], <[www.bl.uk/news/pdf/googlegen.pdf](http://www.bl.uk/news/pdf/googlegen.pdf)>.
- Bugeja, M. (2001): "Collegiate copycats", *Editor and Publisher Journal*, **134**, 22-37.
- Comas, R. eta Sureda, J. (2007): "Ciber-plagio académico. Una aproximación al estado de los conocimientos.", *Revista Textos de la CiberSociedad*, **10**, <[www.cibersociedad.net/textos/articulo.php?art=121](http://www.cibersociedad.net/textos/articulo.php?art=121)>.

- Frand, J. L. (2000): "The information-age mindset: changes in students and implications for higher education", *Educause*, **35(5)**, 14-24.
- Fuentes Agusti, M. (2006): *Estratègies de cerca i selecció d'informació a internet. Anàlisis de les modalitats de cerca i selecció d'informació a Internet dels estudiants de quart curs d'educació secundària obligatòria*, [doktorego-tesia], Universitat Autònoma de Barcelona, Bartzelona.
- Hunt, R. (2003): "Four reasons to be happy about Internet plagiarism", *Teaching perspectives*, **5**, 1-5.
- Luckin, R.; Clark, W.; Graber, R.; Logan, K.; Mee, A. eta Oliver, M. (2008): *Learners' use of Web 2.0 technologies in and out of school in Key Stages 3 and 4*, [ikerketa-txostena], Becta, United Kingdom, <[http://partners.becta.org.uk/index.php?section=rh&catcode=\\_re\\_rp\\_02&rid=15879](http://partners.becta.org.uk/index.php?section=rh&catcode=_re_rp_02&rid=15879)>.
- McCabe, B. ; Butterfly, K. eta Trevino, L. (2006): "Academic dishonesty in graduate Business Programs: prevalence, causes, and proposed action", *The Academy of Management Learning and Education*, **5(3)**.
- Mittermeyer, D. eta Qirion, D. (2003): *Information Literacy: study of incoming first-year undergraduates in Quebec*, National Library of Canada, Kanada, <[www.crepuq.qc.ca/documents/bibl/formation/studies\\_Ang.pdf](http://www.crepuq.qc.ca/documents/bibl/formation/studies_Ang.pdf)>.
- OCLC [Online Computer Library Center] (2005): *College Students' Perceptions of Libraries and Information Resources*, [ikerketa-txostena].
- Park, C. (2003): "In other (people's) words: Plagiarism by university students-literature and lessons", *Assessment & Evaluation in Higher Education*, **28(5)**.
- Rey-Abella, F.; Blanch, C. eta Folch-Soler, A. (2006): "Nivel de conducta académica deshonesto entre los estudiantes de una escuela de ciencias de la salud", *Enfermería clínica*, **16(2)**.
- Shih, W. eta Allen, M. (2006): "Working with Generation-D: adopting and adapting to cultural learning and change", *Library Management*, **28 (1/2)**, 89-100.
- Sureda J. eta Comas, R. (2006): *Internet como fuente de documentación académica entre estudiantes universitarios. Una aproximación a partir del alumnado de Educación Social de la Universitat de les Illes Balears (UIB)*, Xarxa Segura IB, Palma, <<http://www.xarxasegura.net/download/Cerques%20a%20Internet-1.pdf>>.
- eta -----, (2008): *El plagio y otras formas de deshonestidad académica entre el alumnado de la Universitat de les Illes Balears. Resultados generales*, [ikerketa-txostena], Universitat de les Illes Balears, Palma, <[www.ciberplagio.es/attachment.php?key=37](http://www.ciberplagio.es/attachment.php?key=37)>.
- Sureda J.; Comas, R. eta Urbina, S. (2005): "The "copy and paste" generation: plagiarism amongst students, a review of existing literature", *International Journal of Learning*, **12**.
- Sureda, J.; Comas, R. eta Morey, M. (2009): "Las causas del plagio académico entre el alumnado universitario según el profesorado", *Revista iberoamericana de educación*, **50**, 197-220.
- Stock, L. A. H. (2008): *Exploring the development of information literacy concepts among community college students*, [doktorego-tesia], Iowa State University, AEB.
- Teixeira, A. eta Rocha, M. (2006): "Academic cheating in Austria, Portugal, Romania and Spain: a comparative analysis", *Research in comparative and international education*, **1(3)**.

# 1. Eranskina

## Ikasleen galdetegia

1. Besteen testu edo lanak erabiltzerakoan aipamen bibliografikoak egiten dituzu?

Inoiz Ez	Batzuetan	Askotan	Beti	Aplika ezina
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

2. Erreferentzia bibliografiko hau zein dokumentu-motari dagokion badakizu?

Rader, H.B. (2002). Information literacy 1973-2002: a selected literature review. *Library Trends*, 51(2), 242-261.

Liburu bat	<input type="checkbox"/>
Aldizkari baten artikulua bat	<input type="checkbox"/>
Webgune bat	<input type="checkbox"/>
Beste [Azaldu zein]	<input type="checkbox"/>

3. Besteen testu edo lanak zureak bezala txertatzen dituzu zure lanetan, aldaketarik egin gabe?

Inoiz Ez	Batzuetan	Askotan	Beti	Aplika ezina
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

4. Beste pertsonen testu edo lanak beren adimen intelektualaz sortuak direnez, jabetza intelektuala beti egilearena dela ohartzen zara?

Inoiz Ez	Batzuetan	Askotan	Beti	Aplika ezina
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

## 2. Eranskina

### Irakasleen galdetegia

1. Unibertsitate-ikasleek besteen testu edo lanak baliatzerakoan aipamen bibliografikoak egiten dituzte?

Inoiz Ez	Batzuetan	Askotan	Beti	Ez dakit
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

2. Unibertsitate-ikasleek galdera hau zuzen erantzungo luketela uste duzu?

– Erreferentzia bibliografiko hau zein dokumentu-motari dagokion badakizu?

Rader, H.B. (2002). Information literacy 1973-2002: a selected literature review. *Library Trends*, 51(2), 242-261.

Liburu bat	<input type="checkbox"/>
Aldizkari baten artikulua bat	<input type="checkbox"/>
Webgune bat	<input type="checkbox"/>
Beste [Azaldu zein]	<input type="checkbox"/>

Inork Ez	Batzuk	Askok	Denek	Ez dakit
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

3. Unibertsitate-ikasleek Besteen testu edo lanak bereak izango balira bezala txertatzen dituzte beren lanetan, aldaketarik egin gabe?

Inoiz Ez	Batzuetan	Askotan	Beti	Ez dakit
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

4. Unibertsitate-ikasleek ulertzen dute jabetza intelektuala beti egilearena dela? Jabetzen dira horretaz?

Inoiz Ez	Batzuetan	Askotan	Beti	Ez dakit
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



